

## **HITZAR**

**(Talde sustatzailearen jarraipen bilera)**

<b>DATA</b>	2023-01-30
<b>BERTARATUAK</b>	Nagore (Itsasondoko Udala), Agurtzane eta Alazne (Goienar), Iker, Ainhoa, Fede eta Erkuden (herritarak), Nerea (Biziola)
<b>GAI ORDENA</b>	Batzar Ireki Informatiboaren prestaketa

### **1.- Ongi etorria eta saioaren kokapena**

Ongi etorria ematen zaie saiora gerturatutako guztiei, bide batez bileraren gai-ordenari errepasso labur bat egiten zaio. Gaurko bileraren helburu nagusia Otsailaren 9an herritarrekin egingo den BATZAR IREKI INFORMATIBOAREN prestaketa egitea izango da.

### **2. Herritarrekin egin den BATZAR IREKI INFORMATIBOAREN prestaketa**

Biziolatik Batzarraren planteamendu orokorra aurkezten da.

#### **1. Ongi etorria eta batzarraren helburuak azaltzea (5min)**

- a. Azken hilabeteetako pausoen berri eman
- b. Kooperatibaren egitura azaldu
- c. Sorkuntzako proiektuaren aurkezpena (Iraolako ustiategia)
- d. Galdera-erantzunak / zalantzak argitzea
- e. Itxiera eta hurrengo pausoak definitzea

## 2. Aurkezpena egin (45 min)

- a. a,b,c puntuak jasotzen dituen aurkezpena erabili

## 3. Galdera-erantzunak /zalantzak (45 min)

- a. Talde txikitara jarrita zalantza sortzen diguten gaiak jasoko ditugu (hau da bakoitzak bereak ekarriko ditu eta taldean multzokatu /osatu egingo ditugu)k
- b. Talde bakoitzak bere galdera / zalantzak botako ditu (aurreko taldean erantzun bada ez dugu errepikatuko)

Galderak erantzuteko:

- Arlo juridikoari dagozkionak (Narrea-Goienere) /
- Arlo teknikoa (Fede Krea/ Alazne Goienere)
- Udala (Iñaki-Nagore)

## 4. Eskerrak ematea, hurrengo pausoak zehaztea eta itxiera.

Taldeak ontzat ematen duen arren, kontuan izan beharreko hainbat ekarpen egiten dira.

- **Deialdia:** Deialdi zabala egitea adosten da, hau da, egun bazkide direnez gain Hitzarren interesa izan dezakeen herritar orori zabaldua. Asmoa bazkide gehiago lortzea izango litzateke. Bestetik Legorretako Udala ere gonbidatzea hobesten da, aurrerago egon daitezkeen hartu-emanak errazteko. Amaitzeko, Itsasondon kokatuta dauden enpresei ere deialdi berezia egitea adosten da, Udalak duen enpresen “direktoria” baliatuko da hontarako, Fedek jada egin dituen harremanak ere probestuko ditu.
- **Bazkidetzak “erregularizatzea”:** Garrantzitsua ikusten da bazkide izateko erabakia hartu baina pausoren bat egin ez dutenekin harremanetan jartzea eta Otsailaren 7rako falta diren pausoak nola eman behar dituzten azaltzea. Ainhoak eta Agurtzanek hartu dute ardura hau.
- **Iraolako froga pilotara batzeko aukera ematea:** Momentuz 25 bazkidek aurkeztu dituzte haien fakturak Iraolako froga pilotan parte-hartzeko. Batzar Informatiboan aukera berriz mahai gainean jarriko da, eta interese luketenei eman beharreko pausoak gogoraraziko zaizkie:

- Bazkide ez direnen kasuan, lehen urratsa bazkide egitea izango da.
- Behin bazkide eginda, egungo elektrizitatearen faktura jarri beharko dute Goiener eskutan (horretarako aurrez prestatu ziren kanalak ber-aktibatu beharko dira)
- Fakturarekin batera titularraren NANaren kopia eman beharko da (bi aldetatik)
- Hitzarreko bazkidea ez bada fakturaren titularra, titularrak baimen berezi bat sinatu beharko du. Kasu honetan ere NANaren kopia ere beharko da (bi aldetatik)

Iraolako Ustiategiaren froga pilotoan parte hartzeko izen-emate epea otsailaren bukaeran amaituko da, Otsailaren 28an.

- **Udal instalazioen egoera argitzea:** Batzar Informatiboan tarte bat hartu beharko da Udal Instalazioen inguruko azalpenak emateko. Argituko da Udalaren borondatea dela, legeak baimentzen duen unean, Udal plakak Hitzarren zerbitzura jartzea. Prozesu hau ez da hasieran uste zen bezain erraza, eta borondatea argia izan arren, hainbat pauso eman beharko dira aurrez. Epe motzean ez da posible izango, baina ahalik eta azkarren posible izan dadin lanean ari dira Udaletik.

### 3. Goiener eta Kreak prestatu duten aurkezpen dokumentuaren kontrastea

Fedek (Krea) eta Alaznek (Goiener) Iraolako Ustiategiko proiektuaren inguruan Batzar Informatiborako egindako lana aurkezten dute. Herritarrei aurkeztu beharreko oinarritzko informazioa azaltzen dute Talde Sustatzailean eta denon artean “fintzen” dugu. Informazioaren inguruan galdera ezberdinak planteatzen dira. Galdera hauek “erregistratuta” izan asmoz Erkudenen galdera-mezu zerrenda bat abiatu du Talde Sustatzailearen WhatsApp taldean<sup>1</sup>.

Galdera hauek esku artean izatea garrantzitsua izango da batzarrerako, batez ere herritarren artetik atera daitezkeen galderak direlako eta erantzunak argi izan behar direlako.

---

<sup>1</sup> Eranskin modura aktaren amaieran.

Goienar eta Kreak egindako proposamena ontzat ematen da, batzarrera eraman beharreko planteamendua berresten da beraz. Dena den, ohar moduan ondorengo ekarpenak egiten dira:

- Argi utzi behar da zenbakien kalkulua, oso kalkulu kontserbadorea dela, agertokirik “gogorrena” bistaritzen dutela.
- Kooperatibaren egiturazko gastuak eta instalazioarenak ondo bereiztuta aurkeztu behar dira.
- Aseguruen kasuan (instalazioarena) egokitu egin behar dira.

Bestalde, kontrastean zehar sortzen joan diren galderen harira, kooperatibaren barne araudian landu beharreko hainbat gai ateratzen dira:

- Noiz pasako diren urteroko bazkietza kuotak
- Kooperatibaren sartu/irteerak nola kudeatuko diren

-Instalazioei dagokionez:

- Noiz eta nola egingo dira errebisioak
- Sartu / internak nola kudeatuko dira.

## **5. Norberak lekarkeena**

Fedek berriro gogorarazten du garrantzitsua dela, Ainhoarekin, Iraolako Ustiategiaren jabe moduan, Hitzarri bere teilatua lagatzearen “kompensazioa” adostea.

### **Hurrengo bilera:**

- Batzar Ireki Informatiboa: Otsailaren 9an, arratsaldeko 18:00etan Udalean.
- Batzar Erabakitzailea: Martxoaren 16an, arratsaldeko 18:00etan Udalean.

## **6.- Itxiera**

Amaitutzat eman zen bilera

## **ERANSKINA: Galdera-sorta**

**Hasierako nire ekarpena 100€ izan bada, urteko kuota zenbatekoa izango da?**

Hitzarreko bazkide kuota 20€ izango da kasu guztietan. Hasierako ekarpena 100€tako izan bada, 80€ ezohiko ekarpen bezela jasoko da "estatutoetan".

**Instalazioen batz besteko bizi iraupena 25 urtekoa bada, eta mantenimendu egokiagatik 30era luzatzea badago, zer gertatzen da gero?**

30 urte ondoren plaka berriak jarri beharko dira, inolaz ere ez da instalazio guztia aldatuko (ez badago oso egoera txarrean) eta kasu horretan gastua ez da hasierakoa bezain beste, gutxiago izango da.

**Proiektu batean hasieratik parte hartu ez duen bazkide bat, sartu daiteke edozein momentutan? Edo hasieratik dagoen norbaitek, baja eman dezake edozein momentutan?**

Bi kasuetan bai. Proiektuaren bizi iraupenean, edozein momentutan batu daitezke bazkideak, edo kontrara, edozein momentutan irten daitezke. Erabakitzeke daude ordea baldintzak. Horiek HITZAREko bazkideen artean erabaki beharko dira

**HITZAREko kuotak zertara bideratuko dira.**

Alde batetik aholkularitza gastuak daude. Instalakuntzen aseguruak ere HITZAREk ordaindu beharko ditu. Horrez gain.....

**HITZAREko bazkide izateak ze gastu ekarriko dizkit urtean.**

Gastu fijoak kuotarena izango da, 20€. Horrez gain, parte hartuko duen instalakuntza proiektuetako gastuak izango ditu.

**Eta zer geratzen da aurre egin ezin badiot proiektuetako gastuei?**

Erabakia HITZAREKO bazkideen esku dago... (adibidez instalakuntza bakoitzetik xKW utzi daitezke kasu hoietan dauenen artean banatzeko ezta?)

**Bere teihatuan plakak jarrita dituen herritarra izan daiteke Hitzarreko bazkide, eta, beraz, jaso ditzake komunitateko plaketatik onurak?**

**Noiz eta nola egingo da bazkidetza kuotaren urteroko ordainketa?**